

VIII. IGANDEA URTEAN ZEHAR (B)

Otoitza

Jainko Jauna, egizu, mundu honek
zure asmoen neurrian aurrera egin dezala;
emaiezu herri guztiei egiazko bakea,
eta Elizari, zure zerbitzu santuan zintzoki irauteko poza.
Zure Seme Jesu Kristo.

I. IRAKURGAIA: Os 2, 14. 15b. 19-20

Nire emazte hartuko zaitut betiko.

Oseas Profetaren liburutik

Honela mintzo da Jauna:
«Nire emaztea Niregana bilduko dut,
eta basamortura eramango,
eta bihotzera hitzegingo diot.
Eta han bere gazte egunetan bezala erantzungo dit,
Egiptoko lurraldetik igo zen egunetan bezala.
Nire emazte hartuko zaitut betiko;
nire emazte hartuko zaitut legez eta bidez,
maitez eta errukiz.
Leialtasunez hartuko zaitut nire emazte,
eta zuk ezagutuko duzu Jauna».

ERANTZUN SALMOA: Sal 102, 1-2. 3-4. 8 eta 10. 12-13

R/. Errukior da Jauna eta kupibera.

Ene arima, goretsazu Jauna,
neure barren osoak Haren izen deuna.
Ene arima, goretsazu Jauna,
eta ez ahaztu Hark zuri egina. R/.

Hark barkatzen baititu zure hobenak,
sendatzen zure gaitzak denak;
begiratzen du heriotzatik zure bizia,

ematen dizu buruntzat grazia eta errukia. R/.

Errukior da Jauna, eta kupibera,
berant haserre eta guztiz onbera.
Ez dihardu gurekin gure hobenen neurrira,
ez digu ordaintzen geure erruen harira. R/.

Sortalde-sartaldeak urrun baitaude elkarrengandik,
hain urrun bidaltzen ditu gure gaiztakeriak gugandik.
Aita bere seme-alabetaz errukitu ohi den bezala,
beldur diotenentzat errukidun da Jauna. R/.

II. IRAKURGAIA: 2 Ko 3, 1b-6

*Zuek Kristoren agiria zarete,
gure bidez idatzia.*

San Paulo Apostoluak Korintotarrei

Senideok: Beste norbaitzuk bezala, gorapen agiriak zuen aurrean azaldu beharrik
ote dugu, edota zuei eskatu beharrik?

Zeuek zarete gure agiria, zeuen bihotzetan idatzia, jende guztiak irakurria eta
ezagutua. Izan ere, garbi dago, zuek Kristoren agiria zaretela; gure bidez
idatzia, eta ez tintaz, Jainko biziaren Espirituaz baizik; ez harlosatan,
bihotzeko haragi losatan baizik.

Jaungoikoarengan dugun uste ona Kristori esker dugu: gu geu ez gara gauza ezer
asmatzeko eta ezin dezakegu geure bururik goratu; gure gai izatea
Jaungoikoarengandik datorkigu, Berak egin baingaitu gai, elkargo berri baten
zerbitzari izateko.

EBANJELIOA: Mk 2, 18-22

Aleluia: St 1, 18

R/. Aleluia.

V/. Aitak, bere gogoz, egiaren hitzez sortu gaitu,
bere izaki guztietan lehenengoak izan gaitzen. R/.

Senar berria berekin daukate.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik

Aldi hartan, Joanen ikasleek eta farisearrek barau eguna zuten batean, etorri ziren batzuk eta esan zioten Jesusi: «Joaen ikasleek eta farisearren ikasleek barau egiten dute, eta zure ikasleek zergatik ez?»

Jesusek erantzun zien: «Barau egin al dezakete ezteilagunek, senar berria berekin daukaten bitartean? Ez dezakete baraurik egin, senar berria berekin daukaten bitartean. Etorriko da senar berria kenduko dieten eguna; orduan bai, egun hartan egingo dute barau.

Ez dio inork josten jantzi zahar bati oihal gordinezko adabakirik; adabakiak tira egiten baitio jantziari, oihal berriak zaharrari, eta haundiago egiten da zarrastada. Ez ditu inork ardo berriz betetzen zahagi zaharrak; ardoak lehertu egiten baititu zahagiak: ardoa eta zahagiak, denak galtzen dira; horregatik, ardo berria zahagi berritan».

Oparigaien gainekoa

Jainko Jauna, Zuk emana dugu
guk Zuri eskaintzen dizuguna,
eta Zuk gure zerbitzu bezala hartzen diguzu;
egizu, gure irabazirako ematen diguzunak
betiko saria ekar diezagula.
Jesu Kristo.

Jaunartze ondorengoa

Zure dohain salbagarriak harturik, Jauna,
apalik eskatzen dizugu:
orain janaritzat ematen diguzun sakramentu honek
betiko bizia irits diezagula.
Jesu Kristo.